

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen dekretua. Eskumenak eskuordetzea

Aintzat hartu dira Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak eta Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoa.

Udal Gobernuaren eta Administrazioaren indarreko antolakuntzarekin bat etorritz.

Oinarrien Legearen 124. artikuluan xedatzen dira alkatearen zereginak eta bertan horietako batzuk, dekretu bidez, Tokiko Gobernu Batzarreko beste kideen esku utz ditzakeela adierazten.

Oinarrien Legearen 124. artikuluko 4. a), f), g) atalak, 125. artikulua eta 127. artikuluko 1 e) g) h) eta l) atalak eta Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 12., 40. eta 41. artikulua ikusi dira. Horiek guztiak kontuan harturik,

Xedatzen dut

I. Gobernuaren eskuordetzeak

Lehena. Alkateorde eta Tokiko Gobernu Batzarraren kide Iñaki Gurtubai Artetxe zinegotzi jaunaren esku uztea funtzio hauek:

a) Udalaren ordezkari izatea egungo Ogasun eta Giza Baliabideen sailtako zerbitzuen jardueretan –alkateari dagokion ordezkari nagusia gorabehera–, ekitaldi publikoetan nahiz beste instituzio, erakunde edo elkarteetako hitzarmen edo harremanetan.

b) Dekretu, ebazpen eta jarraibideak ematea egungo Ogasun eta Giza Baliabideen sailtako zerbitzuen esparruan, baita egintza horien kontra bidezko diren errekursoak ebaztea ere, salbu eta lizentziei, kontratazioei eta gastuei dagozkienak eta zigortzeko ahalmena; izan ere, Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenekoak dira horiek, eta, horrenbestez, hark eskuordetu beharko ditu, behar izanez gero.

c) Udal organo betearazlearen erabakiak argitaratu, gauzatu nahiz betetzeko agintzea, egungo Ogasun eta Giza Baliabideen sailei dagokienez. Tokiko Gobernu Batzarrak esleitutako kontratuak sinatzea, egungo Ogasun eta Giza Baliabideen sailei dagozkionetan.

d) Ordainketa-aginduak ematea eta ordainketak gauzatzea edozein bide baliatuz, eta kontaktaketa-agiri arruntak izenpetzea.

Bigarrena. Alkateorde eta Tokiko Gobernu Batzarreko kide Maider Etxebarria García zinegotziaren esku uztea lehen atalean adierazitako zereginak, Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailari dagokionez, hauek izan ezik: Merkataritza Zerbitzuko, Prestakuntzaren, Enpleguaren eta Ekonomia Sozialaren Zerbitzuko eta Biltzar Zerbitzuko barne zuzendaritza eta kudeaketa, hauek eskuordetze berezia dute eta.

Hirugarrena. Alkateorde eta Tokiko Gobernu Batzarreko kide Ana Oregi Bastarrika zinegotziaren esku uztea lehen atalean adierazitako zereginak, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekin-tzaren Sailari dagokionez, hauek izan ezik: Nekazaritza Eremuaren Zerbitzuko eta Ingurumen Plangintza eta Kudeaketa Zerbitzuko barne zuzendaritza eta kudeaketa, hauek eskuordetze berezia dute eta.

Laugarrena. Alkateorde eta Tokiko Gobernu Batzarreko kide eta Felipe García Miravalles zinegotziaren esku uztea lehen atalean adierazitako zereginak, Hezkuntza eta Kultura Sailari dagokionez, Kultura Zerbitzuko barne zuzendaritza eta kudeaketa izan ezik, hauek eskuordetze berezia dute eta.

Bosgarrena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide Jon Armentia Fructuoso zinegotziaren esku uztea lehen atalean adierazitako zereginak, Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailari dagokionez.

Seigarrena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide Itziar Gonzalo de Zuazo zinegotziaren esku uztea lehen atalean adierazitako zereginak, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Sailari eta Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Sailari dagokionez, hauek izan ezik: Udalbatzaren Bulegoaren, Gazteria Zerbitzuaren, Berdintasun Zerbitzuaren, Euskara Zerbitzuaren eta Bizikidetzeta eta Aniztasunerako Zerbitzuaren barne zuzendaritza eta kudeaketa, hauek eskuordetze berezia dute eta.

Zazpigarrena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide Borja Rodríguez Ramajo zinegotziaren esku uztea lehen atalean adierazitako zereginak, Udal Administrazioaren eta Eraldaketa Digitalaren Sailari dagokionez eta Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Sailari dagokionez, baina Gizarte Etxeen Zerbitzuaren barne zuzendaritza eta kudeaketa izan ezik, hauek eskuordetze berezia dute eta.

Zortzigarrena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide Livia Claudia López Gutiérrez zinegotzi andrearen esku uztea lehen atalean adierazitako zereginak, Kirol eta Osasun Sailari dagokionez.

Bederatzigarrena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide Marian Gutiérrez Ondarza zinegotzi andrearen esku uztea lehen atalean adierazitako zereginak, Herritarren Seguratasunaren Sailari dagokionez.

II. Eskuordetze bereziak

Hamargarrena. Jarraian aipatzen diren zinegotzien esku uztea hainbat zerbitzuren barne zuzendaritza eta kudeaketa. Hala ere, Sail horretako titular den gobernuko zinegotziak ahalmena izango du hirugarrenei eragiten dieten administrazio-egintzen bitartez ebazteko, eta zinegotzien jarduna ikuskatzeko.

– Iñaki Gurtubai Artetxe jauna: Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko Udalbatzaren Bulegoa eta Euskara Zerbitzua.

– Cesar Fernández de Landa jauna: Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Ingurumen Plangintza eta Kudeaketa Zerbitzua.

– Miren Fernández de Landa andrea: Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko Gazteria Zerbitzua, Berdintasun Zerbitzua eta Bizikidetzeta eta Aniztasunerako Zerbitzua; eta Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Nekazaritza Eremuaren Zerbitzua.

– Felipe García Miravalles jauna: Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Saileko Merkataritza Zerbitzua, Prestakuntzaren, Sustapenaren, Enpleguaren eta Ekonomia Sozialaren Zerbitzua, eta Biltzar Zerbitzua.

– Estíbaliz Canto Llorente andrea: Hezkuntza eta Kultura Saileko Kultura Zerbitzua, eta Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Saileko Giza Etxeen Zerbitzua.

Azken xedapena. Dataren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau, ALHAOn eta Udalaren web-orrian zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Xedapen indargabetzailea. Indarrrik gabe geratuko dira dekretu honetan xedatutakoaren kontraokoak diren maila bereko nahiz beheagoko dekretu eta ebazpenak oro.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 21ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE